

DONOSTI KISKALAYARI

© OROITZA | 1813 ©

(Donostiya-ko uri-batzarrak aurten egin dituben indar-neurtzeetan
Aldeera irabazia.)

*Odoi beltz galda gori-goriya
salkeri loitsak irazekiya,
chingar trinkotan dabillen ori
auts ta kedarren lañodi gorri;
eche t'agedi kiskali otsa...
zer ikaretan nere biyotza!
sukelduaren barru-barruti
orzaude ketan, nere Donosti.*

*Nola dezaket itzarik esan
suretzaz, gaurko nereoritzan?...
Daude sentzunak atzarri ala
itzaldirako zintzo dirala?
Negar aundiyyak darama chanda
zorigaiztoko ordu izan-da:
kiskali dator neuritz-arreta
zakustanian sutan erreta.*

*Mamiz zetortzun semetaldiya
jayotaz batsu abeslariya;
ayen soñu ta santzo alayak,
zorameneretan zeunkaten jayak,
amaitu dira oraingo gabez...
tereslariyak, suteko labez,
estu t'ikaraz bira-ta-bira
ketan ito-ta mututu dira.*

*Lendiz baziña atsegintzale
badatorkitzu, tarterik gabe,
negar orduko asti luzea,
sutan zabiltzan doakabea!...
negar egizu... t'orain echiak
azaldu arren guzik erriak,
etzatzu noski, alataz ere,
biyotz-barrena ezertaz erre.*

*Donostia maite, usoa bezin
beratz ta garbi, goso t'atsegin:
semechoentzat ama laztana,
edozenentzat eder ziñana;
urez inguru, t'ostoz babesti
lorez jantzi-ta zeunden Donostia
jarri zenduben, guziz eztia,
ichas-ertzatan zure kabiya.*

*O zer chokoki zure egope!...
bero-berotan anche nengóke:
zuk bularpeko lumachak astin,
ta nik, uskurtuz, ongicho jakin,
an zeneukala, change larritan
atsege charren mami-mamitan,
gozakundeak, aterpe zala
ama zarraren kolko zabala.*

Gaztelupeko adarrez zintzil urak musu-ta, echetaz bil-bil, ichituratza arresetiña... ala zeneukan zure kabiya; oñetik zear gerri goruntza apain zegotzun adarki-untza, t'ichasoaaren bi besoz laztan, ausoko ura baretzu baran.

O zeñek esan, aldan geyena, nolakua zan kabi-barrena!... zer algara ta zer jaya biran!... zer soñu eder barrenen ziran!... Ango chaluak, bertako parra! o erre ziñan Donosti zarra, maíz nereganontz etorri zaite, zaitudalako, autsere, maite.

Anche, gabaren illueetan, usoa zegon leyo-seletan ikaraz dar-dar... Atzerritarak nastu zitzuten errí-baztarrak; maltzurkeriz ta salkeri gaiztoz iriska ta naspil bertara datoza... Donostiyari, zer negargarri! suba ziyyeten kabiyan jarri.

Zeru-goyetik onuntz abiya aingeru eder gordelariya! t'ekar zayozu Donostiyari Gurutzapeko atsegir-sari. Jaunaren ordez bazatuz-eta ego zabalki asmoz bete-ta... arimak jaso, zure ardura, t'eraman laster oyek zerura.

Biztanle guzik garraz urduri asitzen dira laster itzuli... zure semiak, anaide chortan, maitaro zeuden kolkope ortan; bañan etzayen gaizkundetzarra! orain da erruz oyen negarra, orain surtara, ichu ta larri chingar aunditan kiskaligarri.

Eta izketan natortzu, ama?.. erasitarontz zerek narama? o naigabezko ameski-luak, erirotzako chorabiyuak, amas estuko negar ordubak!... aguro zaitu kiskali subak, udazkenetan pillan orbela sakardiyetan oi dan bezela.

T'or zakust aurrez guziya laño kedar t'errautsa soroetaño: erruz ilotzak lurpetu gabe suba zayela obi ta labe: gaiso-orrentzat kupirik etzan, etzenekiaren noruntza etzan; zure semien kondarren biltzan karrasiyetan ero zenbiltzan.

RAMÓN INZAGARAY